

DIAGNOSTIKORAKO TXOSTEN-GIDA

**EUS-
KAL
EGITU-
RA
POLITI-
KOA**



**nazio
etabaida
gunea**

I.- EUSKAL HERRIAREN EGOERA POLITIKOA.

Oharrak:

1.1.- AURREKARI HISTORIKOAK: Herriaren nortasuna.

Euskal Herriak egun bizi duen egoera juridiko eta politiko zatikatua ez da euskal herritarrok geure historia luzean zehar libreki hartu izan ditugun erabaki politiko askeen emaitza, baizik eta mendeetan zehar -eta gaurdaino- geure herriak pairatu duen etengabeko zapalkuntza historikoaren emaitza argia.

Izan ere, geure herriaren historia luzea, euskaldunon eskubide zibil, politiko, ekonomiko eta kulturalen bortxaketa iraunkorrarena da nagusiki eta, horrekin batera, bortxaketa horiei aurre egiteko eta bere buruaren jabe izateko geure herriak antolatu duen erresistentziarena.

Horrexegatik, Euskal Herria Bizkaia, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako lurraldeetan bizi den herria dela azpimarratu nahi dugu, egungo inolako marko juridiko eta politiko aitortuetan subjektu politiko bateratu gisa azaltzen ez bada ere.

1.1.1.- Euskal Herria Erdi Aroan: Nafarroako Erreinua

Kontestu politiko historiko zail horretan Euskal Herriak bere nortasun berezituari eutsi dio luzaroan bertaratu diren beste herri zein aginte politikoaren aurrean. Euskal lurraldean antolaketak politiko ezberdinak izan dira historian zehar, baina gutxitan izan du Euskal Herriak bertan iturri zuen aginte politiko bateratu eta berezkorik, Nafarroako garai bateko erreinua salbu.

Hain zuzen ere, XVI. mendetik aurrera, erreinu honetako konkistarekin batera, Estatu eraikuntzan garaile gertatu ziren Frantziako eta Gaztelako -gero Espainiako- erreinuek bere barruan hartu zituzten euskal lurraldea eta bertan bizi zen herria.

Aipatu aginte politikotan barneratu bazen ere, XIX. mendera arte nortasun politiko berezitu baina mugatuari eutsi zion Euskal Herriak, foru erakundeen bitartez.

Oharrak:

1.1.2.- Euskal Herria Europa modernoaren lehen berrantolaketan: Estatu Nazioen sorrera

XIX. mende hasieran, ideologia nazionalistaren eskutik Estatu eraikuntza nazio eraikuntza bilakatu zen Europan, eta ahalegin nabaria egin zen euskal nortasun berezitua, bai arlo kultural zein politikoan, frantziar eta espainiar nazio eredu homogeneoetan integratzeko. Estatu Nazioaren ideologiak euskal herritarren eskubide guztien aurkako eraso areagotu egin zuen, hizkuntza, soldaduska, legeria, eskola eredu, kultura, instituzionalizazio eredu Euskal Herriaren interesen aurka indarrez inposatuz.

Bere eredu mundu osora luzatuko zuen Iraultza Frantsesetik eratorritako Estatu ereduak Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoaren errealitatea erabat ukatuko du, eta zentralismo jakobinoan oinarrituriko ereduaren aurrean bertatik sorturiko salaketa eta aldarrikapen historikoak baztertuko ditu.

Estatu eraikuntza prozesua hasi zenetik egondako gatazka politiko zaharra areagotu egin zen Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan, bertako egitura sozio-ekonomikoa sendoagoa baitzen eta Espainiako nazio-estatuaren egitasmoa, berriz, ahulagoa. Europa mailan ematen ari zen estatuetan oinarrituriko antolamendu berriaren aurrean, Euskal Herriak bere burujabetza eskuratzeko eta asimilazio prozesuari aurre egiteko benetako erresistentzia antolatu zuen eta baita gerra-rra jo ere. Gatazka bereko egoera horren lekuko dira bi karlistadak, eta porrot militarren ondorengo foru arauketaren galera.

Gauzak honela, XIX mendearen amaieran, Estatu nazionalismo horri erantzunez eta aipatu foru galeraren ingurunean, ideologia abertzalea errotu egin zen gurean, espainiar eta frantziar eraikuntza nazionalaren aurrean Euskal Herriaren eraikuntza nazionala proposatzen zuelarik, bai erabateko foru berreskuratzearen bitartez, bai, besterik gabe, independentzia politikoa errebindikatuz.

Azken berrehun urteetan, euskal lurraldeetan aspaldidanik existitzen zen nortasun kolektiboan oinarrituta, euskal nortasun nazionala garatu eta tinkotu egin da. Euskal Herriaren proiektu politikoa, dena delakoa izanda ere eskatzen den estatus politikoa, espainiar eta frantziar eraikuntza nazionalarekin modu gatazkatsuan lehiatu da.

1.1.3.- Euskal Herria XX. Mendean

XX. mendean lau momenu garrantzitsuei aipu egin behar zaie: aurrenekoa, Lehen Gerrate Mundiala Frantses abertzaletasuna Lapurdin, Behenafarroan eta Zuberoan sus-traitu zuena; bigarrenik 1936-1939 aldian estatu espainiarrean gertatu zen guda zibila; ondoren, 1939an hasi eta 1945ean amaitu zen Bigarren Gerrate mundiala; azkenik, 60.hamarkada hasiera, batez ere, hirugarren munduan indarra hartzen ari ziren askapen, mugimendu abertzalea berrantolatu eta sendotu egin zen, fronte desberdinak eraikiz eta bultzatuz.

Bigarren puntuari dagokionez, euskal abertzaletasu-

nak indarrean zegoen legalitate errepublikarrari eutsiz, militar batzuek gidatutako sublebazioari aurre egitea erabaki zuen, demokrazia eta eskuratu berri zen autonomia estatutua defendatu nahian. Ondoren, berrogei urte luzeetan euskal abertzaletasunak eta ezkerreko alderdi espainiarrak bat egin da lan egin zuten aldian-aldian harreman desberdinean.

Laugarrenari buruz, hainbat arrazoi tarteko zirela, mugimendu horren eragile batzuek 60. hamarkada amaiera aldera bide armatua indartzea erabaki zuten eta horrek erabateko aldaketa ekarri zuen eta ekarri du gaur egun ere gure gizartean. Eragin handiak sortaraziz.

1.2.- GAUR ARTE INDARREAN DAUDEN EGITURA JURIDIKO POLITIKOEN AZTERKETA ETA ERAGINA.

Estatu espainolean duela 28 urte, Franco hil zenean zabaldu zen aldaketa politikoa, bi izan ziren Konstituzio espainiarrean administrazio frankistak inposaturiko baldintzak: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko zatiketa administratiboa eta autodeterminazio eskubidearen ukapena. PSOEk eta PCEk hausturari muzin egin zioten eta trantsizioa paktatu zuten, bide horretan zuten euskal eragile politiko murgilduz. Horrexegatik, Euskal Herriko lau herrialde hauek biztanleek baztertu zuten Konstituzio espainiarra 1978ko erreferendumean. Konstituzio horretatik eratorritako proposamenak ere, hala-hola jarri ziren indarrean. Gogoratu behar da Gernikako Estatutua ere %51arekin onartu zela eta Nafarroan ez zela Hobekuntza bozkatzeko aukerarik ere izan.

Hala ere, Sistema autonomikoaren bidez lortutako eskumen esparrua, euskal herriaren batasunari eta botere mailari berez jarri zitzaizkion oztupoetaz harago, ahalik eta modu murriztuzenean ulertu du Estatu espainolak. Hogeita bost urteotan, autonomiaren esparrua goitik eta behetik jan baitu Estatuak, egin beharreko transferentziak ukatuz, oinarri lege hedakorrek erabilia edota Auzitegi Konstituzionalaren alde-bakarreko interpretazioen bitartez.

Oharrak:

KONSTITUZIOAREN ERREFERENDUMA

LURRALDE HISTORIKOA	% BAI	% EZ	%ABST.
GIPUZKOA	68,10	31,88	56,57
BIZKAIA	77,32	22,68	57,54
ARABA	78,82	21,18	40,71
NAFARROA	81,70	18,30	33,37

ESTATUTOAREN ERREFERENDUMA

LURRALDE HISTORIKOA	% BAI	% EZ	%ABST.
GIPUZKOA	95,70	4,23	40,47
BIZKAIA	94,81	5,19	42,51
ARABA	90,23	9,77	38,77

ESPAINIAR HAUTESKUNDEAK 2000

Alderdia	Bozken %
EAJ - PNV	31,32
PSE-PSOE	24,03
EA	7,80
IU-EB	5,62
PP	29,14

EAE

ABST.	% 36,16
BOZKAK	1.155.999
ERROLDA	1.810.786

ESPAINIAR HAUTESKUNDEAK 2000

Alderdia	Bozken %
UPN	51,93
PSOE	28,44
IU	7,92
EA	4,88
CDN	2,97
EAJ - PNV	2,25

NAFARROA

ABST.	% 33,9
BOZKAK	306.494
ERROLDA	463.892

EAE-KO LEGEBILTZARRA 1980

Alderdia	Bozken %
UCD	8,52
AP	4,77
PNV-EAJ	38,1
PSE	14,2
HB	16,55
EE	9,82
PCE	4,02

ABST.	% 40,24
BOZKAK	916.275
ERROLDA	1.554.527

EAE-KO LEGEBILTZARRA 2001

Alderdia	Bozken %
PNV - EA	42,72
PSE	17,9
PP	23,12
IU	5,58
EH	10,12

ABST.	% 21,03
BOZKAK	1.414.269
ERROLDA	1.813.356

NAFARROAKO LEGEBILTZARRA 1979

Alderdia	Bozken %
UCD	26,8
PSOE	19,02
UPN	7,80
HB	5,62
NV	29,14
ALDERDI KARLISTA	4,79
UNAI	2,92

ABST.	% 29,24
BOZKAK	258.319
ERROLDA	365.080

NAFARROAKO LEGEBILTZARRA 2003

Alderdia	Bozken %
UPN	41,43
PSOE	21,14
IU	8,77
ARALAR	7,75
CDN	7,66
EA-PNV	7,43
BATZARRE	2,58

ABST.	% 27,72
BOZKAK	305.912
ERROLDA	452.665

UDAL HAUTESKUNDEAK 2003 EUSKAL HERRIKO HEGOALDEAN

Alderdiak	Araba%	Bizkaia%	Gipuzkoa%	Nafarroa %	Hegoaldea %
PNV-EA	33,4	43,5	37,7	5,4	33,3
PSE-PSN	20,2	18,7	23,2	20,4	20,3
PP-UPN	26,7	17,6	12,3	32,3	20,2
Plataformak	6,4	8,4	17,6	7,5	10,3
Legezatuak	0,4	1,2	2,2	2,4	1,6
Legez kanpo	6,0	7,2	15,5	5,1	8,7
IU-EB	6,5	8,4	5,6	7,2	7,2
ARALAR	1,7	0,9	2,0	4,7	2,0
CDN				3,8	0,8
Batzarre				2,8	0,5
UA	3,5				0,4
Besteak	1,6	2,6	1,7	15,9	4,9

IPARRALDEKO DATUAK: 2001KO KANTONALAK**ANGELU HEGOA**

Beñat Gimenez (UDF)	%36,1
Guy Mondorge (PS)	%28,79
J.C. Lamoure (esk.)	%12,31
G. Daubagna (Berdeak)	%8,71
Iñaki Zalunbide (AB)	%4,58
Anne Marie Borda (PC)	%4,28
Henri Rupet (FN)	%3,5
Cecile Greslin (MNR)	%1,16

MIARRITZE EKIALDEA

J. Seguela (UDF-RPR)	%50,19
Andree Willart (PS)	%20,31
Peio Claverie (AB)	%14,18
Serge Harismendi (PC)	%6,11
Elyett Ginoux (FN)	%5,47
Denis Greslin (MNR)	%3,74

DONIBANE-LOHIZUNE

Philippe Juzan (RPR)	%49,19
Louis Giralde (PS)	%18,36
Mertxe Colina (AB)	%11,33
Anne Marie Boudon (PC)	%8,89
J.Pierre Etxeberri (EAJ)	%7,06
Jean Buessard (FN)	%5,16

HENDAIA

Daniel Polou (DL)	%25,78
Albert Pery (PS)	%18,36
Michel Hiriart (esk.)	%10,47
Robert Cazenave (RPR)	%10,05
Filipe Aramendi (AB)	%9,03
Serge Lonca (Berdeak)	%7,2
M.C. Pons-P. Nazabal (PC)	%5,78
Herve Sarda (MDC)	%3,92
Max Zannetti (FN)	%2,92
Iñaki Ibarloza (EAJ)	%2,63

Oharrak:

II.- HITZAREN UKAPENA, GATAZKAREN ITURRI

Euskal gatazka izenarekin ezagutzen duguna, jatorri eta izaera politikoa duen gatazka historikoa da, bertan estatu espainiarra eta frantsesa inplikaturik daudelarik. Gatazkaren iturria eta mantentzeari buruzko ulermoldeak desberdinak eta anitzak izanik, eta nortasun eta egitasmo nazional desberdinen arteko desadostasuna dagoela onarturik, burujabetza politikoan datza konpondu beharreko oinarritzko arazoa.

Euskal Herria deituriko giza komunitateak bizi duen gatazka politikoa erroan herri nortasuna ez aitortzea dago. Izan ere, Frantziak zein Espainiak ukatu egiten diote Araba, Behe Nafarroa, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Garaia eta Zuberoako biztanlegoari herri izaera, hots, Euskal Herria herri bezala existitzen dela ukatu egiten dute. Ondorioz, Euskal Herriari ez zaizkio Nazioarteko Legediak onarturik dituen herrien eskubideak aitortzen eta onartzen, horien artean, bere etorkizunaren inguruan erabakiak hartzeko eskubidea.

Nork bere gustukoak izango ditu, baina nortasun eta egitasmo nazional desberdinen arteko konfrontazioaren konponketa eta elkarbizitza garrantzitsuak izanik, normalizazio politiko baterako ezinbestekoa da Euskal Herriaren etorkizuna nolakoa izango den euskal herritarrek beren hitzaren bitartez adieraztea eta inplikaturik dauden estatuak erabaki hori errespetatzea.

Euskal Herriaren ondasunik baliotsuena bertan bizi den jendea dela jakinik, agerikoa da Euskal Herrian ematen den eskubide urraketa indibiduala eta kolektiboa:

- Bizitza eskubidea.
- Euskaldun nazio nortasunaren eskubidea ukatua da, frantziar eta espainiar naziotasuna aldiz onartuak direnean.
- Integritate fisikoaren eskubidea.
- Herri legez hautua egiteko eskubidea, hots, autodeterminazio eskubidea.
- Adierazpen askatasuna edukitzeko eskubidea.
- Elkartze askatasuna edukitzeko eskubidea.
- Sentitua den hizkuntzan bizitzeko eskubidea.
- Jarduera politiko publiko eta askea egiteko eskubidea.
- Askatasun eskubidea.
- Duintasun pertsonal minimoa edukitzeko eskubidea.
- Mehatxurik gabeko Jarduera ekonomiko baterako eskubidea.

Bi Estatuak ukatu egiten dute bai euskal herriak eraikuntza nazional aske eta borondatezkoari ekin diezaion baita ere euskal herriaren autodeterminazio eskubidearen egikaritzea klasikoa, alegia, euskal herritar guztiei nahi duten estatus politikoari buruz modu askean galdetzeko eskubidea. Ukapen bikoitz horretatik eratorritzen da nagusiki egungo gatazka politikoa eta denok pairatzen dugun etengabeko eskubide urraketaren eskenatokia.

III.- MARKO BERRIAREN EZTA- BAIDA ZABALDU DA: EUSKAL HERRIA GLOBALI- ZAZIOAREN ATA- RIAN.

Oharrak:

Edozein herrik bere iraupenari eta garapenari aurre egiteko tresna politikoak behar ditu. Barne eraketa eta garapenaren nolakotasuna, bai eta beste herriekin eduki nahi diren harremanak arautzeko autogobernua ezinbesteko tresna da, arrakastaren bermea ez den arren.

Erdi Arotik hona, autogobernurako ahalmen hori –burujabetza– aginte politiko gorena den Estatuaren bitartez bideratu izan da batik bat, eta horregatik, Estatuaren berezko ezaugarri bihurtu da burujabetza, bi kontzeptuok banaezinak egin arte.

Egia da estatuaren edukiak, eta honekin batera burujabetza-
renak, aldatuz joan direla mendeotan zehar. Garai bateko estatu subiranoen muga zorrotzak modu malguagoan ulertzen omen dira gaur, eta batzuen iritzian burujabetza eta estatua ez dira zertan batera azaldu.

Alabaina, estatu burujabearen ezaugarri klasikoak: beste herriekin parez pare bizitzeko aukera, muga batzuen barneko herriari egokituko zaion aginte politiko aske eta demokratikoa antolatzeko eskubidea, edo beste botere politiko, kultural edo ekonomikoen indarrezko eragina oztopatzeko ahalmena, esan bezala, askotan nahikoak ez diren arren, oraindik beharrezko baldintzak dira herrien iraupena eta garapena bermatzeko.

Egitura politikoaren beharrezkotasuna adierazteko honako esamoldea aipatzen da: “Nazioak Estatu behar du, Estatuak nazioa behar du”. Alegia, aginte politikoaren beharra nortasuna babestu eta garatu ahal izateko, eta nortasun komunaren, erkidetasunaren premia aginte politiko jendarte elkartasunean eta hiritartasunean oinarritu dadin. Bi aldeon oreka topatzea helburu egokitzat jotzen da: Eraikitze juridiko-politikoak lagun diezaiola erkidegoaren garapenari, erkidegoaren hedakuntzak oinarritu dezan eraikitze juridiko-politikoak. Egitura juridikoetan inongo salbaziorik espero gabe, baina era berean pentsatu gabe erkidegoak berezko tresna politikorik gabe aise iraun dezakeenik.


Mundu globalizatuan gaineratuko zaizkion erronka berriei ezin izango die aurre egin Euskal Herriak oraingo tresna

Oharrak:

IV.- AZKEN HITZA

Herri gisa plazaratu diren diagnostiko gehienetatik zera ondorioztatzen da: globalizazioaren erronkei herri gisa aurre egiteko beharko diren tresna politikoak nekez topa daitezke berezko erakunderik gabe, euskal erakundeen arteko harremanik gabe, edota beste herrien borondateak mugatzen dituen erakunde autonomikoen eskutik. Europako eraikuntzak dakarren botere politikoaren eduki eta muga berregituraketak premiazkoa bilakatu du hausnarketa hau.

Oro har esan genezake euskal herriaren zati esanguratsu batek Frantziako eredu zentralista eta frankismo amaieran hasitako ziklo politiko autonomikoa agortutzat jotzen dituela. Zehatzago esanda, 1998an Lizarra-Garaziko adierazpenarekin irekitako garaiak aldaketa politikoaren zikloa dela dirudi.



**nazio
eztabaida
gunea**